

# “KOSMODISEAK TALDE LANA ETA SORKUNTZA SUSTATZEN DITU”



Ixabel Aldasoro | Axular Lizeoa | Lehen Hezkuntza 1

Ixabel Aldasoro Axular Lizeoko “Izar Urdina” taldeko arduraduna da. Talde horrek lortu du Kosmodisea Grapho Planetan Lehen Hezkuntza 1 kategorian puntu gehien.

*Nola jaso du taldeak Ikono Planetaren aldetik jasotako saria?*

Planetan lehen postua lortu zutela jakin zutenean asko poztu ziren, nola ez.

*Fase hau egiterakoan, zer iruditu zitzaion zailena?*

Haurren adina kontuan izanda, zailena “wikia” koordinatu eta osatzea izan da. Hala ere, helburua behar bezala lortu dute.

*Grapho Planeta Kosmodisea lehiaketako aurtengo edizioan txertatu den berritasuna da. Zer iruditzen zaizu fase berri hau txertatzea? Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu baduzue, oraingo faseen programazioa beste urteetakoak baino hobeak ala okerragoak iruditu zaizkizue? Primerakoa iruditu zaigu. Aurreko edizioetan “wikia” ez zen gehiegi lantzen adin honetan. Ikasturte honetan, aldiz, oso lan onak ikusi ditugu, talde gehienek oso ongi egin dute lan. Zorionak guztiei!*

*2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?*

Interesgarriena ikasgelatik kanpo taldean lan egitea izaten ari da. Gure taldeak talde-lan zoragarria egin du eta Grapho Planetak zakurren gaian sakontzeko aukera eman digu. Argi dago Kosmodiseak talde-lana eta sorkuntza sustatzen dituela.

*Eta zeintzuk dira Kosmodisean parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?*  
Agian, simulatzailea sail batean egitea. Erabakiak hartu eta adostu behar dira eta puntu asko daude jokoan.

*Nola egiten diozue aurre Kosmodisea 2011-2012ko datorren azken "Mito" faseari?*  
Gogo handiz. Taldean lan egiten jarraituko dugu eta ahal dugun guztia egingo dugu emaitza on bat lortzeko. Eta hori gainerako taldeen gustukoa bada, askoz hobeto.